

literatura plazara



Felipe Juaristi eta Juan Ramon Unamuno

Otsailaren 17an
Poesia musikatua

Intxaurrondo Kultur Etxea 19:00

Laguntzaileak



Gipuzkoako Foru Alderdiak



HITZA



bagera
Espirituak
Kulturaren Gaitasuna

Antolatzaileak



Donostia Kultur Etxea



donostia.kultura



Plazara 900
Intxaurrondo Kultur Etxea

1

Dena hartzen du desirak bere baitan,
aingeru, demonio eta gizaki,
kimera, utopia, nahi eta ametsak,
isiltasuna hausten duen barrea;

iturri garbitik sortzen den hitza;
maitaleen ibilera lasaia;
elkarrengandik urruti zeudela
uste izan zutenen beso luzea;

Jainkoa eta haren gorabeherak.
Dialektika, armonia, xakea;
zientzia, konputagailua, erlojua;

Infinitua da, sar badaiteke ere
laztan eta agur dagien eskuan,
izar ibiltari den begiradan.

2

Dena lezake gorputzak eta, era berean, ezer ez lezake.
Kanta lezake goiz zurian eta, ez horregatik, txantxangorri izan.
Oihu egin eguerdian eta, ez horregatik, txirula izan.
Barre egin lezake arratsean eta, ez horregatik, haize firfira izan.
Negar egin lezake gauez eta, ez horregatik, euri min izan.
Ur bihur daiteke oinazez eta, ez horregatik, elur maluta izan.
Desegin daiteke plazerez eta, ez horregatik, hari-albainua izan.
Gora daiteke oinekin bat eginda, baina ez lezake zerua jo,
bere izaera galtzeke, gorpu abandonatu bihurtzeke.

3

Libreak ote gara, ala esklabo?,
Esklabo, agindua betetzen duena?,
libre, bere nahiera dabilena?,
sonanbulu traketsak ote gara?
Amets betean ditugu egiten
esna egiten ez diren gauzak.
Norbait ari da haritik tiraka,
aingeruak, txori ilunak bezala.
Desira hain da berekoi eta bigun,
giza basoan bizi den aztore.
Zaharra da eta beti gazte azaltzen.
Bera da indarrik lehen eta nagusi,
ogia eta ardoa, gau zuria,
beroa eta hotza, arrosaren mina.

4

Argiak ez du ezer jakin nahi
ondoko gauza guztiekin;
nekatuak, badoa urrun;
kolore hautsia dago
ilunabarretik zintzilik,
ezagun den oro bat-batez
desegino balitz bezala.
Itxaroten nago, oraindik,
Itxaroten nago, aspaldi,
zuk noiz une hau salbatuko,
jazarka duen ahantzitik.

5

Txoriek badute beren aberria: lumajea bezain arina, airea bezain bizigarria, bihotz zintzoa bezain zabala.

Han aurkitzen dute babes triste zein pozik, izuturik zein izurik gabe bizi diren txoriek, haundi zein txiki, polit zein itsusi diren txoriek.

Ez dago banderarik aberri horretan.

Baina kolore guztiak biltzen dira hango zeruan: belearen beltza, usoaren zuria, txantxangorriaren gorria, karnabaren berdea, kanarioaren horia...

Ez dago harresirik aberri horretan, ez kaiolarik, ez eroetxerik, ez koartelik.

Ez dago armarik aberri horretan, ez eskopetarik, ez fusilik, ez pistolarik.

Askatasunaren herria da.

Gauero egiten dut hartaz amets.

6

Igogailu batera sartu eta zerura iritsi arte itxaron,

Ezinezko maitasunik gertaezineko dela amestu,

Txanponaren modura zorteak bi aurpegi dituela sinestu,

Mahomarengana mendia ez badator,

Mahoma mendira badoala esan,

Unibertsoaren ardatza geu garela pentsatu,

Soldaduskak gizon eta kartzelak doktore bihurtzen dutela aipatu,

Fedeak ibaiak beren arroetatik mugierazten dituela

Konbentzituak egon,

Itsasoan bizi direnez gero, arrainak

Zoriontsuago ote diren galdetu,

Bakartien saindutzat hartu Robinson Crusoe,

Hiri honetan bilatu Desira izeneko tranbia bat,

Etsaia aurretik igaroko delakoan eserita gelditu atarian,

Lagunei utzitako liburuak itzultzen direlako konfidantza eduki.

7 Errauts arrastoa hatz artean.

Hori geratzen da.

Haurtzaroko eguzkia
oraindik hil nahi ez duena;
orduak igarotzen ikusteko;
izkina bat.

Lehen ametsa hautsi zuen ohea.

Hori geratzen da.
Lorez lehertu zen udaberria,
berarekin bihotzak.
Hori geratzen da.

Ilunabarrez pintatua,
odola borborka.
Pasioak ulertu gabe
hazi zen gorputza.
Hori geratzen da.

Maitasun hitza ezabatatuta
gutun batean.
Mundua laztandu zuen
haur baten eskuak:
ekaitza eta ikara,
barrea eta negarra.
Hori geratzen da.

8 Dena, agian, aingeruen esku dago.

Lehena Historiaren aingerua da,
ahoa irekia du harriduragatik,
hegoak zabalak izuagatik,
aurrera doa musua iraganari emana,
non ikusten diren
suntsipena eta hondamendia,
haragian eta adimenean ere bai,
denborak utzitako zauri-arrastoak.

Justiziaren aingerua harro da ageri,
ezpata zorrotza darama esku batean,
San Migel goi aingeruak bezala,
eta balantza bat altxatzen du bestearekin;
oihal mehe batek estaltzen dio bekokia,
begi ezezagun misteriotsuak tapatuz,
berak ere ez dio so egiten
ikusi behar ez duenari.
Bere denbora bakarra da,
erabakiaren unea, epaiaren ixtantea,
non dena gertatzen den
lehen eta azken aldiz, betiko.
Gainerakoa iraganean geratzen da
edo geroan.
Ez du bere izaeraz haratago jo nahi.

Baina gizakiok hemen gaude, eta orain,
gure eternitate-irrikak irentsiak.
Ispilu bat gara batzuk besteontzat,
egiten duguna oro besteengan da islatzen,
haien ikusmiran eta haien arnasan,
haien mintzoan eta haien pentsaeran.
Gure desira aurrera doa korrika,

gure oroimena iraganetik isuri zaigu,
geldiro, inor aurrean harrapatu gabe,
ez bada gure itzal bakartia.

Bizitza ez da gerra zibila,
batzuetan nabaria, besteetan ezkutua:
gorputzak gorputzen aurka,
espirituak espirituen aurka,
gorputz eta arima elkarrekin lehian,
gure aldiaz haratago iraun nahian.
Garena gara, ez gezur ez ipuin,
ez aingeru ez deabru, ez amets ez eldarnio.
Gizatasuna dolutzen, penatzen eta mintzen da,
ez duelako bere hilkortasuna onartzen.

Bada beste aingeru bat, bere erara utzia.
Garaitua eta eroria jasotzen du,
adore eman eta bidea erakusten dio.
Ez du begiratzen ez aurrera ez atzera,
ez bere irudiak iraungo lukeen tokira,
mugimenduan beti, geldi sekula ez.
Dagoen tokian lagun hurkoa du ikusten,
berak nahi lukeen eran islatua,
izaki garbi eta garden, izaki on eta apal.
Bera da zauritu eta gaixoen sendatzaile,
berak ematen dizkio babes gabeari etxe eta berme,
gose denari jateko,
egarri denari edateko,
biluzik dagoenari janzteko,
sufritzen duenari eta negarrez
justizia eske datorkionari kontsolamendua,
biktima besoetan hartzen du.
Errukiaren aingerua da.

Historiaren aingeruak ez du galdetzen,
badakizki erantzunak;
Justiziaren aingeruak
ez du gaizkiaren arazoa konpontzen,
ezta ongiaren arazoa ere;
Errukiaren aingeruak
ezin oinazea estali eta zuzendu,
hain da handia eta hain dago hedatua hura,
eta bera da hain ahul eta indarge.
Aurrez-aurre begiratzen dio ordea,
begiak irekiak, erotu gabe.

9

Oiloak zeuden

jaio nintzen etxean.

Ibai baten ondoan zegoen,

eta batzuetan bai, besteetan ez

irten egiten zen bere bidetik.

Behin, uholde handiak izan ziren

eta udaletxeokoe desbideratu egin zuten,

beste toki batera eramanez.

Horrela geratu nintzen haurtzarorik gabe.

Aitak esaten zigun oiloei esker

ez zutela hainbeste goserik pasa,

beste lurralde batzuen aldean, jakina.

Nik ez dut gosea pasa izana gogoan,

baina bai bi gorringo zituzten arrautzak,

artoaren kolorekoak.

Nik gorroto nien oiloei.

Beti erdian egoten ziren,

dena zikintzen zuten.

Izurritea bezalakoak ziren.

Behin ostikoa eman nion bati,

bainugelan sartu zelako,

garbitzen ari nintzenean.

Airean bidali nuen txokora.

Aitak errieta egin zidan.

Esan zuen abereak gaizki hartzen zituenak

gaizki hartuko zituela lagun hurkoak.

Behin, burua ireki nion ikaskide bati,

harri batekin.

Ez naiz oroitzen zergatik.

Aitak ez zidan errieta egin,

niri eskutik hartu

eta haren etxera joan ginen,

kale erditik zehar ibiliz.

Nik lotsa handia sentitzen nuen.
Arrautzak ikaskidearen etxean utzi genituen,
“barkatu!”, esanez.
Gero, freskagarri bat hartzera gonbidatu ninduen
eta galdetu zidan ea ez ote nengoen hobeto.
Ni isilik nengoen eta gorrotoa nuen.
Gorrotoa nuen eta isilik nengoen.
Ikaskidea gorrotatzen nuen, mundu osoa ez gutxiago.
Behin, nahita, kaleko atea irekita utzi nuen.
Oiloek alde egin eta ibaira jo zuten.
Han, denak ito ziren,
bat izan ezik, baina ez zen sekula
bere onera etorri.
Aitak errieta egin zidan berriro.
Esan zidan abere bat hiltzen duenak
edozein gizaseme hil dezakeela,
eta berak ez zuela halakorik onartuko.
Ni amorruez erretzen nengoen,
ni amorruez hiltzen nengoen.
Norbait hil egin nahi nuen.
Horregatik, harriak botatzen nituen ibaira.
Gogoan dut handi bat botatzera nindoanean,
aitak bera kendu
eta eskutik hartu ninduela.
Telebista zuen taberna bakarrera joan ginen,
bidean elkarrekin hitzik trukatu gabe.
Eseri ginen eta freskagarria eskatu zuen niretzat.
Berak baxoerdi bat hartu zuen.
Telebistari begiratzeko esan zidan.
Kasu egin nion, ezer ulertu gabe.
Gizon bat hilda ikusi nuen, auto batean.
Kennedy deitzen zen.
Izuz beterik, isilik geratu nintzen.
Aitak esan zidan gizasemea hiltzen duenak

ez duela salbaziorik.

Etxera itzuli ginen.

Ez zegoen oilorik.

<https://zubitegia.armiarma.eus/?i=63>

literaturaren zubitegia

1.027 idazle / 4.948 idazlan
7.381 esteka / 6.036 kritika / 1.828 aipamen / 5.306 efemeride

Bilaketa aurreratu

A B C D E F G H I J K L M N O P R S T U V W X

Felipe Juaristi

Jaio: 1957 - ekainak 12
Azkoitia - Gipuzkoa

Bibliografia	Zubiak
<p>POESIA</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Denbora, nostalgia 1984, Baroja➤ Hiriaren melankolia 1986, Baroja➤ Laino artean zelatari 1993, Alberdania➤ Galderen geografia 1997, Alberdania➤ Begi-ikarak 2004, Erein➤ Aingeruaren angelua 2011, Luces de Galíbo➤ Piztutako etxea 2014, Erein➤ Muga (liburu kolektiboa) 2016, El Gallo de Oro➤ Chillidari gorazarre (liburu kolektiboa) 2017, Balea Zuria	<p>AIPAMENAK</p> <ul style="list-style-type: none">➔ «XX. mendeko poesia kaierak», Koldo Izagirre
<p>NARRAZIOA</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Bordelera 1996, Erein➤ Inazio Muniberen abenturak 2001, Oleriti Etxea	<p>LIBURUAK OSORIK</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Denbora. Nostalgia➤ Hiriaren melankolia➤ Intzensua lurrean bezala➤ XX. mendeko poesia kaierak
<p>NOBELA</p> <ul style="list-style-type: none">➤ Intzensua lurrean bezala 1988, Baroja➤ Arinago duk haizea, Absalon 1990, Erein	<p>ERDARATUAK</p> <ul style="list-style-type: none">➔ Euskal Literatura Itzuliaren Katalogoa <p>ESTEKAK</p> <ul style="list-style-type: none">➔ Auñamendi➔ Barraren bestaldetik (HAEEn webgunea)➔ basquepoetry.eus➔ Bertso eta Olerkien Hemeroteka➔ Donostiako euskal idazleak➔ EHU - Literaturaren Hiztegia - idazlanak➔ EHU - Literaturaren Hiztegia - idazleak➔ EIE - liburu fitxak - Aingeruaren angelua➔ EiEren weba➔ eLiburutegia➔ eLiburutegia➔ Galtzagorri➔ NordaNor - Itzulpenak➔ Wikipedia➔ Zaldu Fro idazleekin (arnazkia)

10 Baudelaire

Neskato zuri ilegorria,
zure soinekoaren zuloetatik
bistan uzten duzu pobrezia
eta edertasuna,

Niretzat, poeta maskal honentzat,
zure gorputz gazte gaixoberak,
orezta orbanez beteak, badu
zerbait gozoa.

Alegiazko erregina batek
bere belusezko brodekinak baino
dotorezia handiagoz daramatzazu
zure kalotx astunak.

Zure piltzar motzegiaren ordezt,
gorte-jantzia eder eta dotore,
luze eta firfiratsu, herresta dadila
zure orpoen gainean;

Zure galtzerdi zulatuen lekuan,
jende malmutzaren begietara
dir-dir egin dezala zure zangoan
urezko sastakaiak;

Lasa lotutako zure korapiloek
gure bekatuen alde erakuts ditzatela
zure bi bular ederrak, distiratsuak
bi begi bezala.

Zure jantzia erantzi ahal izateko
zure besoek erreguak eska ditzatela
eta zartada bizkorrez astin ditzazula
behatz bihurriak,

Dirdairik ederrenezko perla biziak,
Belleau maisuaren sonetoak
zure galaiek, kate motzean lotuek,
etengabe zuri eskainiak,

Morroi errimagile saldoak
beren trebeziak zuri eskaintzen
eta zure oinetakoa kontenplätzen
eskailerapean,

Zoriaz xarmaturiko mila mutil,
mila jaun eta mila Ronsard amodioz
lirateke debaldeko zelatan begira
zure toki berrira!
Zure oheetan izango zenuke
musua ugariago liliak baino
eta mendean zenuke hartuko
Valois bat baino gehiago!

Zu, alabaina, hor zabiltza eskean,
bide ertzeko Vefour bat edozeinen
atarian botatako hondakin zaharrak
biltzen;

Zeharka begiratzen diezu irrikaz
zazpi txakurtzikiko bitxiei, baina
nik ezin, ordea, horiek ere, oh! barkatu!
zuri oparitu.

Zoaz ba, beste apainduriarik gabe,
ez perfume, ez perla, ez diamante,
soilik zure biluztasun argalarena,
O ene ederra!

11

Bakardadearen nekeak zapuztu
nekearen bakardadeko itzala,
gizakiak galdu du bere ahala,
indar gabe gorputza zaio hustu.
Besteak gu garela dugu aitortu,
eta gu gara besteak bezala,
odol, hezur, haragi, uste apala,
elkarrekin dugu mundua sortu.
Elkar maitatzea da mirakulu,
besarkada estu, itsas uhina,
poz eta zorionaren makulu.
Dena izan nahi eta ezinaren mina,
ezertxok ixten ez duen zirkulu,
besteekin ere bizitzeko grina.

12

1 izatea baino gehiago da bakarrik egotea.
2 izatea baino gehiago, gutxienik.
2 baita interesatzen zaigun guztia.
Eta batzutan bakarrik egoteak esan nahi du
Batean bizi direla multzoak.
Noizbait bakarrik egon denak
Bereaz gain bizi ditu beste bizitzak,
Aspaldiko oihartzunek hartua diote ezaguera,
Urrutiko musikak ezkututzen dira haren bihotzean,
Arima lausotzen diote milaka
Jainko ezezagun eta harrizkoren otoitzek.
Noizbait bakarrik egon denak
Bereaz gain ibili ditu beste bideak;
Atsedena bilatu du ilunabar izoztuetan,
Ahantziaren iturria goiz-alba loretsuetan,
Seguruak, argizko uztaien artean ernalduak.
Badaki zeruertzaren lerroa nahastu egiten dela
Gorputz behin eta berriro maitatu izanarekin.
Ez dagoela beste lurrik atzean geratu dena baino.
Noizbait bakarrik egon dena
Galdu izan da denboraren azpilduretan,
Denbora orainaren oroitzapen luze urezkoan,
Geure baitan dagoena bildurik eta lo
Hondar aleak esku-kuskuilu batean bezala.
Zeren bakarrik dagoena ez baita inondar.
Geografia zaio itsaso ordokiz betea.
Ihesi doa ziurtasunetik, desertore gisa.
Icaro berritua, airean barrena biluzik hegan.
Baina babestuko lukeen tenplurik aurkitzen ez.
Pentsamenduak gorritzen diren lorebaratzerik ez.
Fedearen begiez ez baitu so egiten.
Jakituna izanik inoiz ez da sentitu arrotz.
Joan-etorri dabil, inora mugitu gabe.

Hitz egiten du hitzik gabe, baina esanez
Den guztia badela eta izango dela
Norberak barruan daramanean.
Bakarrik dagoenarentzako oroitarririk ederrena
Parke abandonatutako banku hutsa.
Umez eta txori erraustuz inguraturik.

13

La levedad en levedad avanza,
Pasaron nubes y se quedó el río,
Pasaron aves y se quedó el frío,
El otoño siempre nos alcanza.

Fluye el tiempo con lentitud mansa,
Fuimos luces en un mundo sombrío,
Fuimos dioses bailando en el vacío,
El recuerdo del ayer no descansa.

Llueve ahora la tenaz inquietud,
Gotas de agua engordadas con los años.
¿Fue menos el vicio que la virtud?
¿Fueron más los favores que los daños?

Desde lejos dicta la juventud
hay que saber vivir sin engaños.

14 **Artzeri Donostian**

Bizitza

irekitzen

eta ixten da.

Hormak ez dira

ixteko

ez irekitzeko,

bereizteko baizik.

Autopistak bereizten du,

trenbideak bereizten du,

errepideak bereizten du,

herria bitan banatuz,;

eta era berean

herria beste herriekin

lotzen dute,

elkartzen dute,

adiskidetzen dute.

Mendia,

ibaia,

basoa,

bakardadearen etxe dira.

Bakardadean bakartuz,

bakardadean goxatuz,

bakardadea tantaz tanta

irentsiz

bakardadea janez,

edanez,

bakardadearen mintegian

minduz,

poemak irudikatzen dira;

bakardadearen iturrian

ito larrian

poemak sortzen dira.

Poema
irekitzen
eta ixten da,
tximeleta,
txori,
euli,
izaki txiki gisa,
arina
baina askea,
leuna
baina askea,
ederra
baina askea.

Hegoak ebaki banizkio...
baina
nola ebaki arnasa haizeari?
nola kendu ura euriari?
nola erauzi berdea zelaiari?
nola lapurtu txingarra suari?
nola ezkutatu distira argiari?
Zuhaitza moztuko banu,
zer litzateke lanbroa basoan?
itsasoa lehortuko balitzaigu,
norentzat gatza?
mendia beheratuko balitz,
gure pareraino etorriz,
zertarako elurra?
Larrosa zapalduko bagenu,
nora usaina?
Gizakiari begiak ebaki banizkio,
dena litzateke ilun eta beltz,
gizakiari hegoak ebaki banizkio,
zertarako askatasuna?

Bihotza irekitzen
 eta ixten da.
 Irekitzen da
 lagunekin kantuan,
 anaiekin solasean,
 arbasoekin ametsean,
 maitearekin gorputzean,
 baldin eta
 poza
 eta itxaropena bada.
 Ixten da,
 askotan ixten da
 bakerik gabean;
 itotzen da,
 askotan itotzen da
 heriotzaren
 malkoetan.

Felipe Juaristi



Irudi gehiago
0:00 CC 🔊 MENUA
Ahotsa

Bizitza

Jaiotza Azkoitia, 1957ko ekainaren 12a (64 urte)

Herrialdea Gipuzkoa, Euskal Herria

Hezkuntza

Heziketa Madrilgo Complutense Unibertsitatea

Hizkuntzak euskara gaztelania

Jarduerak

Jarduerak idazlea, poeta, itzultzailea, **zutabegilea** eta unibertsitateko irakaslea

Parte-hartzailea [erakutsi]

Jasotako sariak **ikus** [erakutsi]

Narrazioa

- *Bordelera* (1996, Erein)
- *Inazio Muniberen abenturak* (2001, Oleriti Etxea)

Nobela

- *Intzensua lurrean bezala* (1988, Baroja)
- *Arinago duk haizea, Absalon* (1990, Erein)
- *Airezko emakumeak* (2003, Erein)
- *Ez da gaua begietara etortzen* (2007, Erein)
- *Etxearen negarra* (2007, Erein)
- *Iraganik gabe* (2017, Erein)
- *Erbesteko elurra* (2019, Erein)

Poesia

- *Denbora, nostalgia* (1984, Baroja)
- *Hiriaren melankolia* (1986, Baroja)
- *Laino artean zelatari* (1993)
- *Galderen geografia* (1997)
- *XX. mendeko poesia kaierak - Felipe Juaristi* (2001, Susa): Koldo Izagirreraren edizioa
- *Begi-ikarak* (2004, Erein)
- *Aingeruaren angelua = El ángulo del angel* (2011, Luces de Gálibo)
- *Piztutako etxea* (2014, Erein)
- *Muga* (liburu kolektiboa) (2016, El Gallo de Oro)
- *Chillidari gorazarre* (liburu kolektiboa) (2017, Balea Zuria)